

-

-

Badakit

I

Gaur,
zapata berriak jantzi ditut.
Txarolezkoak.

Gaur,
orratza diskoaren zirkunferentziak
inguratzen hasi da.

Gaur,
otsailak 3, biniloa
Janis Joplinen ahotsaz zartatu da.

II

Ene!
Pasarte hau arraiatu egin da.

Ai, ai, ai!
Aspaldiko mamuak errepikatzen dira.

Ai, ama!

kanta hau obsesionatu egin da.

III

Bizitza sinplifikatzen hasia naiz.

Hautsez beteak ditut giharrak,

saihets eta hezurak,

oinotako alfonbra azpiak.

Nire buruko administrazio kontseiluak

irabiagailu bat dirudi,

kontzientziaren ertzean ekilibrismoan.

Atzo, olerki-zirriborroz asetu nuen zakarrontzia,

kanutilloak egin nituen estrogenu-kremarekin,

koktelak hilerokoaren hemorragiarekin;

Mona Lisa elkarrizketatu nuen Louvren,

Eta Irribarrea ebatsi nion, bide batez.

IV

Non dago Prosodia

Euskal Herrian ala Itakan?

Hemen, ikasgelan,

Euskal prosodiarantz goaz:

Pa-zi-en-tzi-a

A-le-ma-ni-a

In-de-pen-den-tzi-a

V

Yo-ta ke gabiltza

Yo-ta aise ahoskatu arte

Salbuespenak salbuespen:

Jertse,

Jipoi,

Jirafa,

Garaje,

Ijito.

Yo-ta ke, jarraituko dugu

Yo-ta barneratu arte.

VI

Egin dezaket

Gustuko dut

Badakit

Nahi dut

Gaur da nire eguna

Argi daukat

Animo

Goazen!

Orain, badakit

imaginazioa nola eraiki.

VII

Alajainkoa!

Arrainek aho zabalik egiten dute,

uretan

ito gabe,

kantuan.

VIII

Pozarren etorri naiz,

hondartzara.

Irrikaz.

Eta hemen nago,

itsas karakola bezala,

ozeanokada bat ikasgai gibelean,

beste hainbeste aitzinean,

olatu hautsien doinuak entzuten,

aspertuta egoteaz

aspertu gabe.

IX

Bizileku bat dakusagu, herriko plazan.

Lehenengo solairuan daude bi leiho itxirik.

Bigarrenean, berriz, bi leiho zabalik.

Eta etxeetako batean, hiru neska lotsaturik.

X

Horma-erlojuan iluntzeko zortziak dira,
Bazkaltiar zenbaitek aperitifa hartzen dihardute lorategian,
Bat-batean mahaiko kutxiloak hasi dira dantzan.
Bandejakada otso-hagin dakar etxeakoandreak,
Entremesak dira,
gaizkileentzat.

XI

Ume horiek globo bana dute amets.
Amak esnea eta opila prestatu dizkie gosaltzeko.

Geroxeago, jazmanak azken notak jo ditu.

Emakumeak perfekzioa iritsi du,
bizitza aletu gabe.

33 urte,
Goian bego,
Silvya Plath.

XII

Pertsona orekatua ote naiz? Nahiko- Ondo-Samar,

Ondo elikatua? Samar- Nahiko- Ondo,

Eroso dabilena? Ondo- Samar-Nahiko,

Maitatua sentitzen naiz? Nahiko- Ondo-Samar,

Dirurik bai? Samar- Nahiko- Ondo,

Pasioz bizi naiz? Ondo- Samar-Nahiko,

Bai, behar beste badut.

Eta apur bat gehiago.

Hori, jakina, “ceteris paribus” baldintzapean.

XIII

Soineko berria jantzi dut,
eremu berrietara hegaldan nagan.

Badakizu, mediku jauna,
Bakoitzak bere zoroa bizi du.

Zu, esaterako, barregarri zaude oso
botoia falta duen bata zuri horrekin.
Hatzak sartu dituzu nire baginan,
urregorri bilatzailea legez.
Arren, esadazu aske naizela
Donibane Lohitzune nahiz Kaliforniarako.
Etorkizuna dudala noranahiko.

Guapa!

Guapa!

Guapa!

XVI

Hazia lurrera erortzen bada, eta baldintzak onak badira, landarea ernetzen da, eta denborarekin zuhaitz bihurtzen. Zuhaitzari udaberrian loreak hazten zaizkio. Gero, polinizazioa gertatzen da; hau da, polen-aleak lore baten pistilora iristeko prozesua hasten da. Ondoren, polena estigma gainean dagoenean, hodi mehe bat haritzen du obulu bateraino, eta, orduan, ernalketa gertatzen da. Hala, poliki-poliki fruitua heltzen da. Eta, beti bezala, fruituak haziak izaten ditu, eta beti berdin egiten du; alegia, ziklo bat osatzen du.

XVI

Badakit ez nagoela bakarrik,
emakume ausartei batuta nagoela,
ametsak egia bihurtzen.

Badakit, bai, ez nagoela bakarrik,
bihotzak elkartzen gaituela
denbora, erlijio eta arrazen gainetik.

Badakit, bai, ez nagoela bakarrik.

Amodioaren gudarosteko gerlaria.

Zalantza barik, horixe bera naiz ni.